

UPV/EHU_n IKERKETA BULTZATZEKO LAGUNTZEN DEIALDIA (2018):

III. MODALITATEA: UNIBERTSITATEA-GIZARTEA IKERKETA PROIEKTUAK

Akatsak zuzentzeko prozedura:

Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeak bere oiniritzia eman ondoren eta Gobernu Kontseiluaren 2018ko otsailaren 2ko onespenezekin, UPV/EHU_n Ikerketa bultzatzeko laguntzen deialdia (2018), III. Modalitatea: Unibertsitatea-Gizartea ikerketa proiektuak argitaratzea erabaki zuen.

Behin eskabideak aurkezteko epea bukatuta, Ikerketaren Arloko Errektoreordetzak eskaeren azterketari ekin dio deialdiak ezarritako irizpideekin bat datozela egiaztatzeko asmoz:

- a) Ikerlari nagusi eta kideek baldintzak betetzen dituztela.
- b) Deialdian zehaztutako dokumentazio osoa helarazi izana.

Egiaztatze honen arabera,

ERABAKI DA, onartzen diren eta alderdiren bat zuzendu behar duten eskaeren behin-behineko zerrenda web atarian argitaratzea.

Eskatzaileek hamar egun balioduneko epea izango dute, **2018ko maiatzaren 3tik 16ra arte**, aipatzen diren aldaketak egiteko. **Zuzenketak egiteko epea amaituta, akatsak zuzendu ez dituzten eskaerak baztertuko dira.**

Ikertzaile nagusiak egindako zuzenketak UPV/EHUko Ikerketako errektoreordeari zuzendu behar zaizkio eta honako erregistro hauetako batean aurkeztu: UPV/EHUko Erregistro Orokorrean (Leioan, Bizkaiko Campusean), campusetako erregistroetan edo ikastegietako erregistroetan. Era berean, eskaerak aurkeztu ahal izango dira urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 16.4 artikuluan zehaztutako beste edozein bidetatik.

Leioan, 2018ko maiatzaren 3an.

IKERKETAKO DEIALDIEN ATALA
Ikerketaren Arloko Errektoreordetza